

MUBIL JARDUKETA PLANA 2021
FUNDAZIOA
ELEKTROMUGIKORTASUN ZENTROA

1. DATU OROKORRAK

- **Sozietatearen izena:** MUBIL FUNDAZIOA
- **IFK:** G75223388
- **Helbidea:** Gipuzkoa Plaza, z/g
- **Herria:** Donostia.
- **Posta Kodea:** 20004
- **Posta elektronikoa:** mubil@mubil.eus

2. XEDEA

Automobilgintzaren sektorea euskal industriaren sektore nagusietako bat da fakturazioari, enpleguari eta enpresei dagokienez (EAEko BPGaren %11,5 da). Gainera, erreferentzia garrantzitsuak ditu sektore pribatuan eta sektore osoari eusten dioten erakunde espezifikotan (sektoreak 300 erakunde baino gehiago hartzen ditu). Lurraldeko teknologia-zentroak eta IKZak nazioarteko erreferentzia dira askotan, automobilgintzaren sektorean espezializatutako graduak eskaintzen dituzten unibertsitateak ahaztu gabe, baita Lanbide Heziketako egitura garrantzitsua ere.

Mugikortasunaren sektorea erabat aldatzen ari da, eta COVID-19ren eraginez gaur egun gauden egoeran, iraunkortasunak are garrantzi handiagoa hartu du, mugikortasun berri bateranzko eraldaketa bizkortuz, non argi eta garbi ikusten baita ibilgailu elektriko huts eta hibrido gehiago egongo direla (azterlan baten arabera, 2025erako saltzen diren autoen %10 elektriko hutsak edo elektriko entxufagarriak izango dira, 2020rako aurreikusten den %2,7arekin alderatuta). Eraldaketa dagoeneko errealitate bat da, fabrikatzaileak argi eta garbi ari dira egiten mugikortasun elektrikoaren esparruan estrategia argiak garatzearen alde, eta esku-hartze publikoak errekuntzako ibilgailuen erabilera murrizten ari dira eta ordezkoko bideak sustatzen ari dira, ibilgailu elektrikoaren protagonista argia izanik.

Aurretik azaldutako guztiaren ondorioz, Gipuzkoan eta lurralde mugakideetan balio-kate bat egituratzen da, zeinak agerian uzten duen lurraldetik proiektu konplexuei ekiteko aukera, dauden gaitasunak oinarri hartuta. Horretarako, ordea, ezinbestekoa da gaitasun horien katalizatzaile bat edukitzea, eta, horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiak MUBIL fundazioa sortu du. Fundazio haren helburu orokorra da mugikortasun berriari lotutako industria-jarduera sustatzea eta jarduera sortzea, bai lehendik dauden enpresentzat, bai enpresa berriak sortuz eta haiei lotutako jarduera berriak sustatuz. Horretarako, lurraldean dauden gaitasunetan oinarritzen da, eta fundazio haren zeregina ekimenak koordinatzea eta katalizatzea da, betiere hori gauzatzeko behar diren baliabideak emanez.

Topaketarako, elkarrekintzarako eta integrazioarako ekosistema bat, aukera berriak sortzen dituena. Agertoki horretan, berrikuntza faktore estrategikoa eta lehiakortasun-faktorea da enpresa eta gizarte garapenerako.

Lau helburu nagusi lortu nahi dira:

- Jarduera ekonomiko berria sortzeko gaitasun zientifiko-teknologikoak eta industrialak lerrokatzea.
- Jakintza transferitzeko eta negozio-hobi berriak sortzeko mekanismoak bultzatzen laguntzea, enpresa-sare berria sortzeko, dagoena eraldatzeko eta enplegu berriak sortzeko.
- Beren jarduerak erakundeen arteko lankidetzaren sare batean sartzea.
- Gipuzkoa mugikortasun berriaren eta energia-biltegiaren esperimentazio gune bihurtzeko bultzatzea.

3. JARDUERAK

Bere helburuak betetzeko, MUBIL Poloak hainbat jarduera garatuko ditu bere lau lan-eremuetan:

Ezagutzaren kudeaketa:

- Prestakuntza- eta gaikuntza-proiektuak koordinatzea eta bultzatzea: ikastaroak eta masterrak.
- Zaintza teknologikoa.
- Nazioarteko proiektzioa: azokak, ekitaldiak, Show-room-a
- Zabalkunde soziala: mintegiak, hitzaldiak eta foro profesionalak eta akademikoak.

Ekintzailtza:

- Gipuzkoan ekintzailtzako eta berrikuntzako ekosistema bat sortzea: startup programak diseinatu eta abian jartzea, hala nola sariak eta erronka teknologikoak.
- Garapen-fasean dauden produktu teknologikoei merkatuan sartzen laguntzea.

Azpiegitura teknologikoa:

- Tolosan energia biltegitratzeko ekipamendu aurreratua duen laborategi bat abian jartzea (behin-behineko egoitza).
- Laborategi eta ekipamendu berezi berriak diseinatzea eta hedatzea powertrain eremuan, bateria elektrikoek eta *fuel cells* -H₂k bultzatuta.
- Produktuak eta zerbitzuak zertifikatzeko sistema bat garatzea.

Living Lab:

- Proba-ingurune erreal bat diseinatzea eta hedatzea: ibilgailu elektrikoak (hidrogenoz eta/edo bateriaz bultzatuak), konektatutako ibilgailuak eta autonomoak, etab.
- Biki digitalen diseinua eta definizioa, ingurune digitaletako mugikortasun berria probatzeko.
- Kargatzeko azpiegitura berriak abian jartzea (elektrikoa eta hidrogenoa).

4. HELBURUAK

2020 urtea MUBIL Fundazioaren bulego nagusiak eta ekipamendu aurreratuko energia biltegitzako laborategia hartuko dituen behin-behineko egoitzaren diseinuak eta definizioak markatu dute. Era berean, MUBILen beste hiru lan-eremuetan (Ezagutzaren Kudeaketa, Ekintzailtza eta Living Lab-ean) lanean jarraitu dugu, zerbitzu eta produktu berriak definituz eta beste batzuk martxan jarriz (prestakuntza-ikastaroak, azokak, elektrizitatea kargatzeko azpiegitura, etab.). Hori guztia Eskuzaitzetako (Zubieta) behin betiko egoitza diseinatu, definitu eta martxan jartzeko helburua ahaztu gabe.

2021ean, MUBIL Poloa garatzea eta hedatzea funtsezkoa izango da, zerbitzu berriak bai diseinatuz eta bai prestatuz, eta martxan daudenak finkatuz.

2021erako, honako hauek dira jarduera-ildo nagusiak:

- Usabal-eko (Tolosa) behin-behineko egoitzaren operatiba abiaraztea eta sendotzea. Energia biltegitzako laborategi aurreratu bat jarriko da agente guztien eskura.
- Eskuzaitzetako MUBILen behin betiko egoitza eraikitzeke prozesuarekin jarraitzea, MUBILen plan estrategikoan jasotzen den bezala.
- Ekintzailtza sustatzearekin eta ezagutza kudeatzearekin lotutako zerbitzuak eta jarduerak diseinatzea, hedatzea eta finkatzea.
- Gipuzkoan elektrizitatea kargatzeko gune berriak hedatzen jarraitzea.
- MUBIL Poloaren posizionamenduan lan egitea; nazioarteko misioak garatuz eta lotura eta lantalde berriak hedatuz.
- Lurraldeko eragileen lankidetzaren sarea zabaltzea lan-eremu guztietan.
- Fundaziorako langileak kontratatzea

Honako hauek dira 2021eko urteko helburu kuantitatiboak:

- Energia biltegitzako laborategia behin-behineko eraikinean abian jartzea.
- Bi prestakuntza-ikastaro antolatzea.
- 5 erakundek MUBIL erakundearekin lankidetzan jardun dezaten lortzea
- 4 pertsona kontratatzea fundazioaren egitura osatzeko.

5. 2021 EKITALDIKO SARREREN ETA GASTUEN AURREKONTUA

KLASIFIKAZIO EKONOMIKO	2021
1. Kapituluak: Langileria gastuak	259.177,39 €
2. Kapituluak: Ondasun eta zerbitzuen gastu arruntak	1.253.250,65 €
20. Arrendamenduak	174.932,56 €
21. Konponketak, mantenimendua eta artapenak	13.088,00 €
22. Materiala, hornigaiak eta bestelakoak	15.497,40 €
226. Beste zenbait gastu	41.000,00 €
227. Profesional edo empresa espezializatuek egindako lanak	972.732,69 €
23. Zerbitzu arrazoiengatik ematen diren kalte-ordainak	36.000,00 €
6. Kapituluak: Inbertsio errealak	481.258,71 €
64. Altzariak eta gainerakoak	27.758,69 €
65. Informazioa prozesatzeko ekipoak	53.500,02 €
66. Bestelako ibilgetu materiala	400.000,00 €
GASTU KORRONTEEN AURREKONTU TOTALA	1.993.686,75 €
KLASIFIKAZIO EKONOMIKO	2021
3. Kapituluak: Tasa eta beste diru sarrerak	- €
34. Zerbitzuak ematea	- €
4. Kapituluak: transferentzia eta diru-laguntza arruntak	1.512.428,05 €
46. Gipuzkoako Foru Aldundiaren transferentzia	1.512.428,05 €
7. Kapituluak: kapital-transferentziak	481.258,70 €
76. Gipuzkoako Foru Aldundiaren transferentzia	481.258,70 €
DIRU SARRERA KORRONTEEN AURREKONTU TOTALA	1.993.686,75 €

6. 2021EKO AURREKONTUAREN AZALPEN MEMORIA

6.1 Gastu aurrekontua

Zentroko gastuen zenbateko nagusiak honako kontzeptu hauei dagozkie: langile-gastuak, arrendamenduak, profesionalak edo enpresek egindako lanak eta eraikinak eta bestelako eraikuntzak.

Gastuen aurrekontua guztira: **1.993.686,75€**

6.1.1 Langileak

Guztira 5 langile aurreikusten dira 2021. urtearen amaieran.

Langileen gastua, guztira: 259.177,39€

6.1.2 Gastu arruntak eta ondare zerbitzuen gastuak

Gastu arrunten eta ondare zerbitzuen gastuak 1.253.250,65 € dira guztira. Honako kontzeptu hauen arabera xehatzen da:

- **Arredamenduak:** Usabalen 2.400 m2 inguruko lokal bat eta inprimagailu bat alokatzea aurreikusten da.

Alokairuen gastua, guztira: 174.932,56€

- **Konponketak, mantentze-lanak eta kontserbazioa.** Kontu sail honetan euskarri teknologikoak martxan jartzeko gastuak eta mantentze lanak aurreikusten dira.
 - Alokaturako lokalaren mantentze lanak eta ibilgailu elektrikoa kargatzeko tokiko mantentze-lanak

Konponketen, mantentze-lanen eta kontserbazioaren guztizko gastua: 13.088€

- **Bulegoko materiala, komunikazioak eta ibilgailu elektrikoa.** Bulegoko materialaren, telefonia finkoaren, mugikorraren, Internetarako konexioaren eta ibilgailu elektrikoaren kostuak.

Bulegoetako materialaren, komunikazioen eta ibilgailu elektrikoaren guztizko gastua: 15.497,4€

- **Askotariko gastuak**

- Langileak kontratatzeke iragarkiak
- Langileen prestakuntza
- Bestelako gastuak, hala nola, prentsarako harpidetza

Hainbat gasturen guztizko gastua: 41.000 €

- **Profesionalek edo enpresek egindako lanak.** Ohiko jarduerak egiten dituzten bertako langileez gain, zentroarekin lankidetzan arituko diren hainbat arlotan espezializatutako langileak izango dira:

- Aholkularitza/auditoria
- Marketina eta publizitatea



- Kanpoko zerbitzuak

Profesionalek edo enpresek egindako lanen guztizko gastua:
972.732,69€

- **Zerbitzuaren araberako kalte ordainak:** atal honetan zentroko langileen joan-etorrien, dieten eta antzekoen gastuak sartzen dira.

Zerbitzuaren araberako kalte-ordainen guztizko gastua: 36.000€

6.1.3 Inbertsio errealak

Inbertsio errealetatik eratorritako gastu osoa **481.258,71 €** da eta honako kontzeptu hauen arabera banakatzen da:

- **Altzariak eta lanabesak:** Mota honetako instalazioentzako erabiltzen diren altzariak

Altzarien eta lanabesen ataleko inbertsio errealen guztizko gastua:
27.758,69€

- **Informazioa prozesuetarako ekipamenduak:** Webgunea eta bezero-postuak garatzeko eta mantentzeko behar diren inbertsioak jasotzen dira.

Informazioa prozesatzeko ekipamenduen inbertsio errealak: 53.500,02€

- **Eraikinak eta bestelako eraikuntzak:** behin-behineko egoitzaren egokitzapena

Eraikineko eta beste eraikuntza batzuetako inbertsio errealak: 400.000€

6.2 Sarrerren aurrekontua.

2021erako, diru-sarrera guztiak iturri publikoen finantzaketaren bitartez aurreikusten dira.

Sarrerren aurrekontua, guztira: **1.993.686,75€**

- **Finantzaketa publikoa:** Gipuzkoako Foru Aldunditik

Diru sarrerak finantzaketa publikoagatik: **1.993.686,75€**

2021. URTEKO AZALPEN TXOSTENA

MUBIL FUNDAZIOA, Gipuzkoako Elektromugikortasun Zentroa

2020 urtea MUBIL Fundazioaren bulego nagusiak eta ekipamendu aurreratuko energia biltegitratzeko laborategia hartuko dituen behin-behineko egoitzaren diseinuak eta definizioak markatu dute. Era berean, MUBILen beste hiru lan-eremuetan (Ezagutzaren Kudeaketa, Ekintzailletza eta Living Lab-ean) lanean jarraitu dugu, zerbitzu eta produktu berriak definituz eta beste batzuk martxan jarritz (prestakuntza-ikastaroak, azokak, elektrizitatea kargatzeko azpiegitura, etab.). Hori guztia Eskuzaitzetako (Zubieta) behin betiko egoitza diseinatu, definitu eta martxan jartzeko helburua ahaztu gabe.

2021ean, MUBIL Poloa garatzea eta hedatzea funtsezkoa izango da, zerbitzu berriak bai diseinatuz eta bai prestatuz, eta martxan daudenak finkatuz.

2021erako, honako hauek dira jarduera-ildo nagusiak:

- Usabal-eko behin-behineko egoitzaren operatiba abiaraztea eta sendotzea. Energia biltegitratzeko laborategi aurreratu bat jarriko da agente guztien eskura.
- Eskuzaitzetako MUBILen behin betiko egoitza eraikitzeko prozesuarekin jarraitzea, MUBILen plan estrategikoan jasotzen den bezala.
- Ekintzailletza sustatzearekin eta ezagutza kudeatzearekin lotutako zerbitzuak eta jarduerak diseinatzea, hedatzea eta finkatzea.
- Gipuzkoan elektrizitatea kargatzeko gunek berriak hedatzen jarraitzea.
- MUBIL Poloaren posizionamenduan lan egitea; nazioarteko misioak garatuz eta lotura eta lantalde berriak hedatuz.
- Lurraldeko eragileen lankidetzaren zabaltzea lan-eremu guztietan.
- Fundaziorako langileak kontratatzea